



III. AHOZ AHO JAIALDIAREKIN «OSO GUSTURA»

Asvineneako Bea Larrañagak azaldu duenez, amaitu berri den Jaialdian «jendearengana hurbiltzen» saiatu dira 2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2010-03-19

VIII. URTEA 1956. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

ENKARNI GENUA TXOTXONGILOLARIA

«Egun hau gure lanbidea gogoratu, aintzat hartu eta hobesteko ere bada»

TOLOSA Txotxongiloen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte gaurtik etzira bitarte


EGITARAU Bihar, egun nagusian, tailerra, erakusketa eta antzerki emanaldia egongo dira Topic zentroan 3



Alegian elkarretaratzea egin zuten atzoko Mobilizazio Egunean. HITZA

DEBEKUEN GAINETIK ANZAREN «HILKETA» SALATU DUTE KALEAN

MOBILIZAZIO EGUNA «Errepresioa eta gerra zikinarekin amaitzea» eskatu dute elkarretaratze, manifestazio edo kartelen bidez 6



Erakusketan Villabonako Larre baserria aurki daiteke. HITZA

Euskal arkitektura eta paisaia ikusgai Seve Iglesiasen margolanetan

ALEGIA Billabonatarren lanak Jubilatuen tabernan egongo dira hilaren amaiera arte 4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

III. Ahoz Aho Nazioarteko Jaialdia herritarrengana hurbiltzen saiatu dira

Kultura » Hilaren 14ean amaitu zen Jaialdia; antolatzaileak gustura daude, «orokorrean oso ondo» joan baita.

ASIERIMAZ

Asvinenea elkarteak antolatutako III. Ahoz Aho Nazioarteko Jaialdia iragan igandean amaitu zen. Hirugarren edizio honetarako memoria historikoa hartu zuten ardatz, «ahozkotasunak memoriaren isla bezala duen garrantzia gogoratzuz».

Nazioarteko kultura desberdinen topaleku izan den Jaialdiaren inguruan, Bea Larrañagak, Asvineneako kideak, hitz egin du.

III. Jaialdiarekin «gustura»

Antolatzaileek oraindik sakoneki hausnarketarik egin ez duten arren, Bea Larrañagak aurreratu duenez «orokorrean oso ondo atera da III. Ahoz Aho Nazioarteko Jaialdia. Hirugarren urtea dela nabaritzen da. Gure aldetik talde polita aritu gara lanean eta pozik gaude. Etorri diren artistek ere lasaia go ikusi gaituzte gauzak antolaterakoan eta alde horretatik ere gustura aurkitzen gara».

Larrañagak esker hitzak ere izan ditu: «Gerturatu den jendeari



III. Ahoz Aho Nazioarteko Jaialdiaren antolatzaileak eta partaide batzuk. HITZA

eskerrak eman nahi dizkiegu, eta gozatu izana espero dugu. Asvineneako jendea beste horrenbeste. Azkenik, prentsaren laguntza ere azpimarratu nahi dugu».

Amaitu berri den Nazioarteko Jaialdian parte hartu duten artistekin hitz egin ondoren, hauek gustura agertu direla azaldu du Asvineneako kideak: «Eurentzat eta denontzat, nire ustez, oso garrantzitsua da beraien lana eta kultura hemen erakusteko aukera edukitzea. Horregatik, eurak ere gustura ibili dira».

Jendearengana hurbilduz

Lanean hiru urte ez dira alperrik pasatzen eta prestakuntzan hori nabaritu dute. Aurten gainera, jendearengana hurbiltzeko saiakera berezia egin dutela azaldu du Bea Larrañagak: «Alde batetik ipuin kontalari euskaldunak ekarriz Jaialdia indartzen saiatu gara. Beste alde batetik, ikuskizunak gune oso egokietan kokatu ditugu».

Horien artean aurkitzen dira Amarotz, Tolosako Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroa, San Esteban auzoa... «Gu joan garajen-

dea dagoen lekura. Guneak apropos aukeratu ditugu eta oro har erantzuna ona izan da» aipatu du Larrañagak.

Jaialdiaren lehen emanaldia, sarrera gisa, hilaren 6ean izan zen Triangulo plazan. Asvineneako kidearentzat «oso polita» izan zen. «*El oraculo de los cuentos* ikustera haur eta guraso ugari hurbildu ziren. Emanaldi hau gainera, egitarauak banatzeko baliatu genuen eta hasiera oso polita izan zen». «Amarotzen ere familia giroa bilatu eta aurkitu genuen. Haurren-

tzat izan arren ikuskizuna, gurasoek ere parte hartu zuten, Bonberean bezala. Alde horretatik pozik gaude». Larrañagaren esanetan, San Esteban auzoko emanaldia izan zen ahulena. «Oraindik helduok ipuinak entzuteko ohitura hartu beharra daukagu».

Berrikuntzen artean Asvineneako kideak Gaztelekua aipatu du. «Bertan Hip-Hopa egin dugu eta erantzun oso ona eduki du. Gune berri batek horrela erantzutea oso pozgarria da».

Aurrera begira

Lau egunetan zehar asko ikasi dutela aitortu du Bea Larrañagak, «leku askotako gauzak entzuteko eta ikusteko aukera eduki dugu. Bakoitzak bere idiosinkrasia dauka, kontatzeko modu asko daudela ikusi dugu eta ikasi, berriz, pila bab».

Atentzioa zerk edo nori deitu dion galdetuta, Jhon Ardila kolonbiarra aipatu du Larrañagak: «Bere ipuinak indigenen borrokan oinarriturik zeuden. Indar eta herri hori zuten, baina goxo-goxo kontatzen zituen. Teknika aldetik, Jerman Argueta mexikarra azpimarratuko nuke. Narrazio desberdina zen berea: mistikoa, keinu askokoa...».

Aurrera begira «hobetzen» jarraitzeko asmoa daukate, horretarako lehenik elkarrekin bildu behar dira, «ondo edo gaizki zer joan den aztertzeko».

Gazteengana gehiago nola gerturatu izan daiteke, agian, aztertu beharreko puntu horietako bat Larrañagaren esanetan.



Ordenagailuak bakarrik falta dira

TOLOSA » Gipuzkoa Encounter IV gaur zabalduko dute 12:00etan. Inaugurazioan Tolosako Alkatea, Jokin Bildarratz, eta Gipuzkoako Ahalduen Nagusia, Markel Olano, egongo dira, besteak beste. Topaketan parte hartuko duten partaideak atzo hasi ziren Usabal kiroldegira hurbiltzen. Aste gutzian lanean aritu dira antolatzaileak eta laguntzaileak, ondorioz, atzo eguerdian dena prest zegoen. A.I.

Laburrak

Ioseba Rojo eskiatzailea bikain aritu da Suitzan

TOLOSA » Joan den igandean Suitzan kokatzen den Engadin bailaran iraupen eskiko maratoi jendetsua ospatu zen, 11.200 partaideekin. Ioseba Rojo tolosarra helmugara 29. postuan iritsi zen, 1:37: 47ko denbora eginaz eta irabazlearengandik 49 segundora. Tradizio handiko maratokia da Wordloppet izenekoa. Iraupen eskiko marxa luzeen zirkuituan sartzen da eta mundu osoko partaideak elkartzen dira bertan. Emaitza bikain honi esker, datorren denboraldian Munduko Kopako probetan parte hartzeko eskubidea lortu du Rojo. Denboraldi bikain honi amaiera emateko, martxoaren bukaeran Espainiako Txapelketara joango da.

Barnetegi Teknologikoa Iriarte Jauregia Hotelean

BIDEGOIAN » Lehiberrik barnetegi teknologikoa antolatu du Iriarte Jauregia Hotelean, hilaren 22an eta 23an. Tolosaldeko enpresetako kudeatzaileak eta zuzendari-tzetako kideak bilduko dira bertan.

Ikus daitekeen partidarik handiena gaur 17:00etan

ELDUAIN » Nafarroako Arroniz herriaren erremonteko lau pilotari onenek elkarren artean jokatu dute gaur 17:00etan hasiko den jaialdian. Alde batetik, Ezkurra-San Miguel irtengo dira kantxara eta beste aldetik, Zeberio II.a eta Urrutia I.a. Erremontean ikusi daitekeen partidurik handiena Euskal Jai Berri Fundazioak eta Arronizeko Udalak antolatu dute. Herri honek jaio zen Jesus Abrego Narvarte, *Arronizeko magoa*, «erremonteen historiako pilotaririk onena». Gaur 100 urte beteko lituzke Abregok, horregatik antolatu dute jaialdi berezi hau. ETBk zuzenean eskainiko ditu partidak. Lehenik Urriza-Badiolaren eta Urtasun-Lizasoren arteko jokatu dute.

Santa Maria Parrokiako Musika Kaperaren bidaiak

TOLOSA » Gaur eta bihar Santa Maria Parrokiako Musika Kaperak Ma-drilera joango da. Familia bertan duten tolosarrei deialdi bat egin diete, eurekin Madrilen elkar daitezen eskatuz.

elduain
taberna-jatetxea

Eguneko menuak
Astebukaeraren menu bereziak
Plater konbinatuak
Ogitarteak

Elduain hirigunea, 1
30493 ELDUAIN (Gipuzkoa)
Tel. 943 68 33 27

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

ENKARNI GENUA Txotxongilolaria

«Gehiago zabaldu behar da Tolosan dugun altxorra»

Kultura Txotxongiloen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi izango dira gaurtik etzira bitarte, Topic Txotxongiloen Zentroan.

INIGO TERRADILLOS

Txotxongiloen Nazioarteko Eguna izango da etzi, eta hori dela eta, egitarau berezia prestatu dute Topic-en. Gaurtik etzira bitarte izango dira ekitaldiak, baina gehienak, eta pisuzkoenak, bihar egingo dituzte. Horien artean, aldiakako erakusketa berria inauguratuko dute, eta Txotxongiloen Eguneko mezua ere irakurriko dute. UNIMAREN (Txotxongiloen Nazioarteko Elkarte) Euskal Herriko lehendakaria da Enkarni Genua (Donostia, 1942). Bizitza osoan egin du lan txotxongiloekin eta gertutik jarraitu du Topic-en proiektua. «Errealitate eginiko ametsa» daberetzat.

Zer esan nahi du Txotxongiloen Nazioarteko Egunak?

Mundu osoan zehar ospatzen den eguna da, izan ere, UNIMA munduan zehar zabaldurik dago. Gurutzat, egun hau gure lanbidea gogoratu, aintzat hartu eta era batera hobesteko ere bada. Bestalde gure artean elkartzeko ere balio izaten du, festa moduko bat egiteko. UNIMAREN izenean testu bateratu bat ere osatzen dugu, eta hori izaten da Txotxongiloen Nazioarteko Eguna ospatzen den leku guztietan irakurtzen dena. Aurtin Robert Lepage zuzendari eta ekoizleak idatzirik mezu iraugarriko da, Tolosan bezala, mundu osoan. Gure kasuan, Luisa Etxenikeri ere eskatu diogu testu bat egun horretarako.

Zer da UNIMAREN eginkizuna?

Txotxongiloen munduan lanean ari garen guztion elkargunea da, eta elkarren artean komunikatzeko baliatzen dugu. Elkarteetako ki-deen artean esperientziak trukatu ditugu, berrikuntzak ezagutzen ditugu, besteak egiten dutena jakiten dugu, mundu osoan txotxongiloen inguruan antolatzen diren ekitaldien berri izaten dugu... Horrela beti egunean gaudela esan daiteke, eta etengabe ikasten goaz.

Aurtin lehenaldiz Topic-en ospatuko da Txotxongiloen Nazioarteko Eguna.

Bai, eta horregatik berezia da. Ekitaldiz beteriko egitaraua prestatu dugu, eta guztiok gustuko izate



ESTI ZEIZA

espero dugu, xumea izan arren bihotzarekin egin baitugu. Herri-tar guztiak gonbidatzen ditugu parte hartzera.

Zer nabarmenduko zenuke egitarauan?

Batetik, *Tradiziozko pertsonaia txinatar txotxongilo antzerkian* erakusketa berriazabalduko dugu. Malikoaren kasuan bezala ikustea mereziko du den kalitatearengatik. Helduei nahiz gaztetoei zuzenduriko bi lan izango dira ikusgai, eta gaztetxoak txotxongiloen mundura gerturatzeko tailerra ere izango da.

Zu ere Txotxongiloen Nazioarteko Zentroaren proiektuaren parte izan zara. Zer sentitzen duzu orain errealitate denean?

Hasieratik izan dut lotura Titirijairekin, beraz, niretzat ametsa egi bihurtzea izan da. Zoragarria da, eta txotxongiloen munduari bul-tzada emateko balio izan du. Zentroak denetarik du, gainera, museo ikusgarri bat, liburutegia, areto itzela... Nik nire inguruko guztiei gomendatzen diet zentroa ezagutzera joateko.

Jende askok ez duela ezagutzen uste al duzu?

Nire ustez gehiago zabaldu behar dugu Tolosan dagoen altxorra, oraindik ere askok ez baitute eza-

gutzen. Bereziki gurasoei egingo nieke deialdia herrian duten zentro berria aprobetxatzea eta joan daitezela euren seme-alabekin, asko gustatuko baitzaie. Esan beharra dago ireki zutenetik har- rera oso ona izan duela, baina nik are handiagoa izan dezan nahi eta espero dut. Topic-ekin lortu duguna oso handia da, baina orain lan- tzen jarraitu behar da, izan ere, zai- lena egin dagoen arren mantent- zteak ere bere lana du, eta hori ez da soilik antolatzaileen lana. Guz- tion artean atera behar da aurrera. **Antzerkiaren munduan eta txotxongiloekin egin duzu zuk beti lan. Zer dira zuretzat txotxongiloak?**

Nire zaletasuna eta era berean nire lana dira txotxongiloak. Niretzat adierazbide oso egokia dira, gazte- txogengana iristea lortzen dut, eta oso gustura sentitzen naiz eurekin lanean. Jendeari ere gustatzen zaio nik egiten dudana, beraz, horregatik, aurrera jarraitzen dut ez dudalako oraingo uzteko asmo eta nahirik.

Liburu bat ere idatzi berri duzu.

Bai. *Altxor bat esku artean* (Erein) izena du, eta txotxongiloekiko nire esperientzia eta ezagutza konta- tzen dut. Bereziki irakasleei zu- zenduriko lana da.

» EGITARAUA

Martxoak 19, ostirala

■ **19:30.** *El Jardinero* ikuskizunaren eszenografia sortzeko prozesua- ren ikus-entzunezkoa. Aurelio Vi- centek egin. Doan.

Martxoak 20, larunbata

■ **11:00.** *Ondo pasa txotxongilo bat* sortzen tailerra. 5 euro.
■ **19:00.** *Tradiziozko pertsonaia txinatar txotxongilo antzerkian* era- kusketaren inaugurazioa, eta on-

doren Txotxongiloen Nazioarteko Eguneko mezua.

■ **20:00.** *Ganbarako istorioak* Tea- tro Urgente Madrid taldearen es- kutik. Helduentzat, gaztele- r. 7 euro.

Martxoak 21, igandea


■ **12:30.** *Azken portua* antzez- lana, Pasaiako Dejabu txotxongilo labo- rategiaren eskutik. Familia osoari zuzendua, euskaraz. 4 euro.

TXOTX

Rezola	Tel.: 943 556 637	Astigarraga
<small>Ipiriza baserria, Suelto Zaharra www.rezolasagardotegia.com</small>		
Oialume Zar	Tel.: 943 552 938	Astigarraga
<small>Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokiak gertu)</small>		
Akelenea	Tel.: 943 333 333	Astigarraga
<small>Oialume bidea 57 www.akelenea.com</small>		
Gurutzeta	Tel.: 943 552 242	Astigarraga
<small>Oialume bidea 63 (sarrera Ergobatik) www.gurutzeta.com</small>		
Lizeaga	Tel.: 943 468 290	Astigarraga
<small>Gartziategi baserria, Martzene postakaldea, 139</small>		
Mina	Tel.: 943 555 220	Astigarraga
<small>Txerrikieta postakaldea</small>		
Gartziategi	Tel.: 943 469 674	Astigarraga
<small>Donevita Astigarraga bidea, 5,0km. www.gartziategi.com</small>		
Elutxeta	Tel.: 943 556 981	Urnieto
<small>Ostaraun auzoa, 34 - Elutxeta baserria</small>		
Larre Gain	Tel.: 943 555 846 - 616 287 867	Hernani
<small>Larre-Gain baserria, Ereflor auzoa</small>		
Otsua-enea	Tel.: 943 556 894	Hernani
<small>Ostiraga auzoa</small>		
Iparragirre	Tel.: 943 550 328	Hernani
<small>Ostiraga auzoa, 10 www.iparragirre.com</small>		
Urdaira	Tel.: 943 372 691	Agnaga-Urtebil
<small>Urdaira baserria</small>		
Arratzain	Tel.: 943 366 663	Arratzain zahar baserria Urtebil
<small>www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com</small>		
Urbartarte	Tel.: 943 180 119	Ataun
<small>Ergoiena auzoa</small>		
Ohiarte	Tel.: 943 501 013	Zerain
<small>Ohiarte baserria</small>		
Isastegi	Tel.: 943 652 964	Tolosa
<small>Aldaba Txiki auzoa www.isastegi.com isastegi@isastegi.com</small>		
Begiristain	Tel.: 943 652 837	Izarategi
<small>Izarroz baserria</small>		
Zabala	Tel.: 943 690 774	Aduna
<small>Gargartza baserria (Goberu auzoa) www.zabala.com info@zabala.com</small>		
Sarasola	Tel.: 943 690 283	Asteasu
<small>Behalora auzoa</small>		
Ola	Tel.: 943 623 130	Irux
<small>Mezka auzoa, 102</small>		
Lindurrenborda	Tel.: 948 637 212	Lesaka
<small>Nabaz auzoa, 8</small>		

DIEZ Autobusak

Autobusak eta autobusen zerbitzu berezia
Mota eta norabide berezia
Bilaka, Tolosa, Tolosa, Tolosa, Tolosa, Tolosa
Munduko helburuak: Tolosa, Tolosa, Tolosa, Tolosa, Tolosa
Munduko helburuak: Tolosa, Tolosa, Tolosa, Tolosa, Tolosa
Posta elektronikoa: mota@autocaresdiez.net



Artea erakutsi atsegin hartzeko

Alegia » Jubilatuen tabernan Seve Iglesias margolari billabonatarren koadroak ikusgai daude hil honen amaiera arte.

IMANOL GARCIA

Alegiako Jubilatuen tabernan erakusketari berri bat dago ikusgai. Seve Iglesias billabonatarren margolanak hilarren bukaera arte egongo dira zintzilik bertan. Euskal arkitektura eta paisaiarekin lotutako koadroak erakusten ditu: baserriak, elizak, paisaiak... eta pintura figuratiboa da bertan azaltzen

dena, ikusten duena margotu du, alegia. Orain bost urte edo aurretik egindako lanak dira.

Hainbat herritan egin ditu erakusketak Iglesiasek. Alegian egin aurretik, Villabonako Erreka tabernan jarri zuen beste bat. Gaur egun pintura abstraktua gehiago lantzen du eta koadro horiek ipini zituen han. Bertako erakusketa

ikusterakoan jaso zuen margolariak Jubilatuen tabernako arduradunaren gonbita.

Margotzen eta ikasten

Aurreko etapan, esan bezala, euskal arkitekturan eta paisaian murgildu zen Iglesias. «Pinturarengatik asko mugitu naiz eta euskal arkitektura hobekien mantenduta dagoen herrialdeak Nafarroa eta Bizkaia dira. Gipuzkoa da galdue-na dagoen lekua». Margotzen joan den heinean, pixkanaka ezagutzen joan da baserriak nola eraikitzen ziren.

Baserri baten inguruan sortutako istorio baten bitartez sartu zen mundu hori arakatzera. Lehen arkatzarekin eta ikatz-ziriarekin margotzen zuen. «Orain urte asko, Lasarten bizi nintzela, baserri oso polit bat margotu nuen arkatzarekin», dio. «Margotu eta astebetera baserri hori erre egin zen. Bere ordez, nabe moduko bat eraiki zuten. Ni handik berri pasatu nintzenean, harrituta gelditu nintzen. Etxera itzuli, margotu nuen koadroa hartu eta baserriaren lekura joan nintzen berriro eta jabea eman nien. Oso polita izan zen». Horrek

animatu zuen baserri gehiago margotzea eta enkarguz hasi zen margotzen. «Egia esan egurra eta harriak asko erakartzen naute», dio Iglesiasek.

Margolariak dioenez, «pinturatik bizi ez garenok, galerietan erakusteko aukerarik ez dugu. Horregatik guretzako aukera bat da erakusketak tabernetan egitea eta niri oso ondo iruditzen zait». Iglesiasek argi du: «Zerbait egiten dakienaren egitekoa bere obra erakustea da. Arte horrela ulertzen dut. Artea erakutsi egin behar da eta jendeak atsegina hartu behar du».



Gazte independentistek, pasa den urtean independentzia Eguna ospatu zuten. HITZA

Anoetako gazteek herrian jardunaldi independentistak antolatu dituzte bihar

Gazteria » 16:30etik aurrera Gaztetxean elkartu eta bideoa, eztabaida, merienda, gonbidapena, argazkia... izango dituzte.

ERREDAKZIOA

Anoetako Gazte independentistak, bihar larunbata, beste hainbat herriatan bezala jardunaldi independentistak egingo dituzte egun zehar.

«Euskal gazteria bi estatuk eta sistema patriarkal oso batek zapaltzen gaitu. Frantziar eta Espainiar kateek, aske izan nahi duen gazteria indarrez lotzen dute, eta sistema kapitalista patriarkalaren mesedetan dagoen herria sortzen ari dira. Euskal gazteek gure herria ukatzera eta prekaritatean bizi-

tzera kondenatu nahi gaituzte agintariak» azpimarratzen dute Anoetako gazteek.

Egoera honekin «nazkatuta» daude eta «aski da» esateko unea iritsi dela diote. «Estutzen gaituzten kate horietatik askatu eta libre izango garen herri baten alde lan egin behar dugu, independentziaren alde indarrak bildu eta alternatibak eraikitzea besterik ez dugu» gaineratu dute.

«Zapalkuntza, errepresio eta ukazioaren aurrean, bestelako eredu eta balore batzuen arabera eraiki behar dugu gure herria» azaltzen dute eta «independentzia, zazpi lurraldez osatutako herria izatetik haratago, herri eredu oso bat bezala ulertzen dugu. Finean, pertsona askez osaturiko herri aske bat dugu helburu» gaineratzen dute.

Horretarako Euskal Herriko txoko ezberdinetan bezala Anoetan ere jardunaldi independentistak gauzatu dituzte. «Independentziaren inguruan eztabaidatuz, egunez egun biharko euskal herria eraikitzen jarraituko».

Biharko egitaraua

16:30ean Gaztetxean elkartu eta bideo bat ikusiko dute eta ondoren independentziaren inguruan eztabaidatzeko aukera izango da. Gero, *GazteEH* herriko gonbidapena luzatuko dute meriendaz lagunduta eta egunari amaiera emateko, margotutako muralaren ondoren, gazte argazkia aterako dute.

«Gaur inoiz baino gehiago, independentziaren alde indarrak bildu eta independentziarako bidea marraztuko dugu!» deia luzatu nahi izan dute Anoetako gazteek.

Galtzaundi Irakurle Taldea sortzeko bilkura

Tolosa » Galtzaundik egitasmo berria jarri nahi du martxan. Hilaren 30ean 20:00etan elkartuko dira Kultur Etxean.

ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak, euskal literaturari eskaintzen dizkion egitasmoen artean, aurtun, Galtzaundi Irakurle Taldea izeneko egitasmo berria martxan jarri nahi du. Horretarako, hilaren 30ean, 20:00etan Tolosako Kultur Etxean elkartuko dira.

Tolosan aurrera emango den egitasmo honek, euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea eta era berean, irakurtzeko ohitura dutenei hitz egiteko espazioa eskain-

tzea du helburu. Gazte eta helduei zuzendua izango da eta ez da zer-tan adituaz behar.

Taldearen funtzionamendua

Hilean behin liburu bat proposatu eta elkarren artean zein irakurriko duten erabakiko dute. Irakurtzeko denbora bat eman ostean, iritziak elkarbanatzeko epea zehaztuko litzateke. Bilkura horiek, Tolosako Kultur Etxean egingo lirateke eta moderatzaile lanak, Leire Zubeldiak egingo lituzke.

Bi hilean behin idazlearekin taldeko ideiak azaltzeko aukera izango da eta lehen gonbidatua ekainean etorriko litzateke. Galtzaundiren proposamena hileko azken ostegunetan elkartzea izango da eta irakurri beharreko liburuak baikoitzak berea lortu beharko du.


Laburrak

Mozañbikerako dirua biltzeko ekimena bihar

TOLOSA » Hirukideko Sendotza taldeak, elkartasun kanpainaren baitan Mozañbikerako dirua biltzeko ekimena prestatu du biharko. 10:00etatik 14:00etara San Franzisko kalean dagoen Gipuzkoako Artxiboaren parean egongo dira. Alde batetik, ilera luze bat egingo dute *euro solidarioak* biltzeko helburuarekin. Eta bestetik, heliozko globo solidarioak jarriko dituzte salgai 3 euroren truke. Biltzen den dirua Mozañbikerako izango da.

'Rompedientes' eta 'Nine' filmak Gurea Zineman

VILLABONA » Gurea Zineman, gaur hilak 19, 22:30ean *Nine* filma eskainiko dute. Larunbatean, 17:00etan, *Rompedientes* filma eta 19:30ean eta 22:30ean *Nine* filma ikusteko aukera izango da. Rompedientes filma izango da eta 19:30ean berriz, *Nine* filma eskainiko dute. Astelehena, ohi bezala, ikuslearen eguna izango da eta 21:30etan hasita, *Nine* filma ikusteko aukera izango da.





Loiolako negoziazio prozesuaren kronika

Prozesuaren kronika zehatza egin du Imanol Murua Uri kazetariak *Loiolako hegiak* liburuan, orain arte inor gubirik ezagutzen zituen datuak argituz.

Loiolako negoziazioaren protagonista izandako Jesus Egiguren, Inigo Urkullu eta Arnaldo Otegiaren testigantzak.

eskaintza berezia

BERRIaren eskutik

15€

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu

www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

Aukera ezazu, BIZI euskaraz

berria



Mendian, Xiberoako Ikastolen aldeko kontzertuan eta Maskaradan egoteko aukera eduki zuten asteburuan. HITZA

Ibarrako Haitzen Raju eta Bai Euskal Herriari herri ekimenak, Algortako Ungari mendi taldearen laguntzaz, Santa Grazira irteera antolatu zuten iragan asteburuan. Guztira 27 lagun hurbildu ziren bertara.

Asteburu bat Xiberoan

HAITZETAN RAJU MENDI TALDEA

Badira guztia aldrebes eta gaizki irtetzen diren egunak, baina era berean, zoria alde izaten dugun egunak ere suertatzen dira aldian behin.

Iragan asteburua hauetako bat izan da. Ibarrako Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriarik, Algortako Ungari (Un tal Gari) mendi taldearen laguntzaz, Xiberoara mendi irteera edo *gastrokirolsoziokulturumusikal* Tote irteera antolatu zuten.

Lehenik, ostiralean, Tote Atharratzeko eta Santa Graziko apaiz handiak luzaturiko apezetxean, oilasko eta basurde janka dotorea egiteko aukera izan zuten bertara gerturaturiko 7 bizkaitar eta 7 gipuzkoarrek. Ardo, sagardo, irri eta afalondo alai baten ondoren... ohera!

Hurrengo egunean, eguraldi exkaxa aurreikusia bazegoen ere,

izugarrizko egun dotorea izan zuten, eta hau ikusirik, Ibarra eta Orendaingo lagunak itxaron gabe, Ehujarreko arrolatik barrena ibilaldi zoragarria egin ahal izan zuten: izotzezko estalaktiten abenturak, ur jauzi izoztuak, erorketak, elur bolak, ongi merezitako kolpeak...

Larumbatean Ibarratik iritsitako lagunak ere ez zuten denbora alferrik galdu, eta Santa Grazira iritsi bezain pronto San Martingo harriartera abiatu ziren. Bertan haztu zituzten Guardia Zibilaren kontrolan sentitutako...

Arratsaldean *bazkalafarimerienda* txerrikiz betea. 21:00etan Atharratzeko elizara joan ziren, Xiberoako Ikastolen alde zegoen musikaldia ikustera: lasaia eta hegan egiteko modukoa. Maddi Oyhenart eta Pier Pol Berçaits-en eskutik. Lehenaren ahotsak eta bere musikariaren instrumentu alda-

ketek «dilurata» utzi zuten ikusleago. Bigarrenaren estilo eta xelebrekeriek, gozamenaz gain irribarre batzuk ere eragin zituen.

Hurrengo egunean, igandean, bizkaitarrak lo geratu ziren bitartean, gipuzkoarrek eskiatzera edo mendira joan ziren. Ondoren gehienek Altzai herrian zegoen Maskaradan amaitu zuten. Bertara Ibarratik beste 10 lagun joan ziren, Eugenio eta bere ahuntzak eta Migel eta bere artaldea, tartean urteak betetzen zituen Arantxa zegoelarik: Zorionak Arantxa!

Maskaradaz gozatu ondoren, Donibane Loitzunen mokadutxoan egin eta oroitzapenean izango duten asteburuari Donostian eman zioten amaiera, hurrengo planak noiz izango diren elkarriz galdetuz.

Erantzuena: Ibartarrek hurrengo irteera Arabara egingo dute apirilaren 18an. Gonbidatuta zaudete denak.



Alegian normaltasunez egin zuten elkarretaratzea. HITZA

Mobilizazioak «errepresioa eta gerra zikina» salatzen

ERREDAKZIOA

Jon Anzaren gorpua agertu ondoren, *Errepresioa eta gerra zikina amaitu!* lelopean, Mobilizazio Eguna deitu zuten atzorako Jon Anzaren senideek, Amnistiaren Aldeko Mugimenduk, *Non da Jon?* plataformak, abokatuek eta beste hainbat eragilek.

Tolosaldean eta Leitzaldean elkarretaratzeak eta manifestazioak antolatu zituzten, besteak beste, Tolosan, Villabonan, Alegia, Amezketan eta Leitzan.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak bere aldetik, herenegun, mobilizazioak debekatu zituen, ekitaldi horietan «terrorismoa goratuko» zelakoan.

Mobilizazioak herrietan

Tolosan manifestazioa egin zuten Alde Zaharrea barrena. 19:30ean ekitaldi horietan «terrorismoa goratuko» zelakoan.

bertara agertzeko deialdia egin zuten.

Villabonan manifestazioa bertan behera utzi zuten, «egun guztian zehar poliziaren presentzia itogarriagatik». Hala eta guztiz ere, Mobilizazio Egunarekin bat eginaz, «kartelak eta pankartak jarri zituzten».

Alegia eta Amezketan elkarretaratzeak egin zituzten «normaltasunez».

Leitzari dagokionez, egun guztian zehar ekimenak burutu ziren bertan. Goizean institutuko ikasleek greba egin zuten, patio ordutik aurrera. Ondoren elkarretaratzea egin zuten eta 40 lagun inguru elkartu ziren bertan. Iluntzean, 20:00etan, Kale Nagusian elkarretaratzea egin zuten, «nahiz eta Guardia Zibil ugari eduki ditugun inguruan». «19ko bi taldetan banatu gara eta elkar ikusten ez ginela egin dugu elkarretaratzea».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



16°
12°

GOIZA
ARRATS.
BEROENA
HOTZENA

EURIA
EURIA
18°
9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeca Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Bideo emanaldia

■ **Tolosa.** Txotxongoien Nazioarteko Eguna: 19:30ean Topic-en Aurelio Vicentek egindako *El jardinero* ikuskizunaren eszenografia sortzearen prozesuari buruzko bideoa.

Deialdia

■ **Ibarra.** Aste Misiolaria amaitzeko meza 10:30ean San Bartolome parrokian.

Jaiak

■ **Berastegi.** Gazte Festak: 17:30ean mutil eta nesken futbol txapelketa; 21:00etan herri afaria. Kako jatetxean; 00:30ean Gabezin musika taldearekin dantzaldia. 42. Aizkardi Martxarako izen-ematea.

Mendia

■ **Villabona.** 42. Aizkardi Martxa hilaren 28an izango da. Luzea 42 km-koa eta motza 24 km-koa. Izen-ematea, www.aizkardi.com/42Martxa.htm edo 649-71 71 82 (20:00etatik 22:00etara, asteleheneetik ostiralera).
■ **Tolosa.** Aiako Harria-Lesaka (Nafarroa) mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak hilaren 28rako. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5), 943 65 27 89 telefono zenbakian edo www.alpinouzturre.com helbidean egin daiteke.

Musika

■ **Tolosa.** 121db eta Lauroba taldearen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

Topaketa

■ **Tolosa.** Gipuzkoako Encounter Topaketak hasiko dira Usabal kiroldegian eta iganderate iraungo dute. 12:00etan izango da inaugurazio ofiziala.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, *Tiana y el sapo* haurrentzako filma, 17:00etan. *Mi vecino Totoro* filma, 19:30ean, jatorrizko bertsoan, zine-forumean. *El hombre lobo* filma, 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18.
■ **Leitza.** Erbiti o. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eskola Txikia handiagoa izango dute adunarek. E. MAIZ

Eskola Txikia handitzeko lanak amaitu dituzte

Aduna » Pasa den urteko uztaillean hasitako obrak bukatu dituzte. Udalak oniritzia eman eta gelak hornitzea baino ez da falta.

ERREDAKZIOA

Adunako eskola txikia handitzeko lanak amaitu berri dituzte. Udalak oraindik giltzak jaso ez baditu ere, egin beharreko ia obra guztiak bu-

katu dituzte eta ikasturte berrirako barrua hornitzea faltako da.

438,98 metro koadro gehiago 2009ko uztaileko oporrak aprobetxatuz hasi ziren obrek. Lan hauek egiteko Hezkuntzak, 446.291,18 eurokoa aurrekontua izan du. Guztira, 438,98 metro koadro gehiago izango ditu eskolak eta bisolairutan banatutako eraikina da. Bertan, 3 gela, komun berririk eta igogailu jarri dituzte.

A Agurrak



Urte askoan!
Joxepa Aierbe (Amezketan).

Zorionak ama, amona eta birramona.

Segi horrela eta muxu handi bat!



Zorionak familia eta lagunen partetik!

agurrak urtebetetzeak urrezko ezteiak ezkontzak jaioberriak jaunartzeak...

P Publierreportajea

Lekeitioko Villa Itsaso hotela, atsedena atsegin



Zergatik Lekeitiara?

Beretako Bilaketa da. Alde zahar ederra dasko Erdi Aroko kaleekin eta arkitekturen nobleekin. Baita arrastza kai bizia eta ezagutzeko gogoa dartzosak hartzeko giro jatorria ere.

Zer egin daiteke herrian?

Udan bere hondartzak erakarriko gaituzte, adibidez euskal kostaldeko ederrenetakoa den Karraspio (Mendexa). Baina udaberriaren edo eguraldia lagun den edozein egunetan Las Itsasdean edo hondartzaren bertan pasatu denazogu, herriko kaleetan bezalaxe. Urdaitai Lekeitiotik gertu dago eta Bilbo ere alternatibisa egokia izan liteke.

Zergatik Villa Itsaso hotelean?

Hotela XIX. mendeko landutua da, euskal estilo berrikoan, itsasoaz eta eguzkiarekin gozatzeko eraikita. Lorategi eta terrazaz inguratutako naturaren erdian dago, Karraspio hondartzaren gainean, itsasoaren eta Lekitioren ikuspegi panoramikoarekin. Gaur egun jatorrizko estiloa mantentzen da eta erosotasuna, argia, bistak eta espazio zabalak dauzka, egonaldi ahaztezinez gozatzeko eskaintzen dugun gutria. Hori dena prezio egokian.



Nolakoa da hotela?

Hotelak apartamentuak ditu, ohe bikoitza, egongela-jangela, banakako bi ohe, sukaldia eta bainugelak oso onekin. Baita logela modura ere. Gosariak eskaintzen ditugu apartamentuan bertan. Wi-Fi-a, berogailua, telebista... hornituta daude. Aparkaleku pribatu ere bai.

Plan bat?

Asteburu bat Villa Itsaso hotelean, Lekeitioko barmetik ezagutu, bere inguru natural ederretan oinez ibili, ondo jai eta horrelako toki berezian atsedan hartzea plan bat baino gehiago da, zure aldetik zerbitu jarri gero bi-zipten atsegina da.

www.hotelvillasasos.com